

LINEAKO INKESTETARAKO WEB ZERBITZUA SERVICIO WEB DE ENCUESTAS EN LÍNEA

48

DEFINIZIOA Zer da?

Inkestetarako web-zerbitzua biztanleriaren edo erakundeen lagin adierazgarri batentzat prestatutako galdera normalizatuen sorta bat da, iritzia edo gertaera jakin batzuk ezagutzera bideratua eta linean egiten dena. Inkestagileak galderarik egokienak aukeratu behar ditu, bere ikerketaren nondik norakoaren arabera eta batez ere galdesortari erantzungo diotenen ezaugarriak aintzat hartuta.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Un servicio web de encuestas es un conjunto de preguntas normalizadas dirigidas a una muestra representativa de la población o instituciones, con el fin de conocer estados de opinión o hechos específicos, que se realiza en línea. El encuestador debe seleccionar las preguntas más convenientes, de acuerdo con la naturaleza de su investigación y, sobre todo, considerando las características de las personas que van a responder el cuestionario.

BALIABIDEAREN ERABILERA Nola erabiltzen da? Lineako inkesta-zerbitzuetan aldez aurretik erregistratu egin behar da, kontu bat lortzeko. Erregistratu den erabiltzailea lan-plataformara sartuko da inkesta diseinatzeko. Ondoren, inkesta zabaldu egingo da posta elektronikoz, berri-buletin baten bitartez edo lotura jarri zaion web-orri, blog edo foro baten bidez. Geroago, inkestatuak inkesta eskuratu, bertako galderei erantzun eta "bidali" (enviar) botoia sakatuko du. Eskuarki, erantzunak web-zerbitzu horretan gordetzen dira.



UTILIZACIÓN RECURSO ¿Cómo se usa?

Los servicios de encuesta en línea requieren un registro previo para obtener una cuenta. Como usuario registrado se accede a la plataforma de trabajo, se diseña la encuesta. Luego, se procede a su difusión a través del correo electrónico, boletín de noticias, o en una página web, blog o foro con un enlace. Posteriormente, el encuestado accede a la encuesta, responde a las preguntas formuladas y pulsa en el botón "enviar". Por lo general las respuestas se almacenan en el mismo servicio web.

IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Ikasleek inkestak linean egiteak ikastetxetik kanpoko edo hurbileko inguruneko jendeari buruzko informazioa eskuratzea eta, horri esker, askotariko eta xede den populazioa ordezkatzen duen lagina lortzea ahalbidetzen du. Emaitzak landu, administratu eta interpretatzeko lanetan, hizkuntzagaitasunak, matematika-gaitasunak eta munduarekiko elkarrekintzazko gaitasunak baliatzen dira. Inkesta bat egiteko, hau gomendatzen da:

- 1. Galdesorta laburrak idaztea
- 2. Hiztegi eta gramatika errazak erabiltzea
- 3. Ongietorriko orrialdean motibatzea eta galdera interesgarriak eginez hastea
- 4. Hartzaileek laguntzarik gabe ulertzeko moduko galdesorta sortzea
- 5. Egitura ordena logikoz diseinatzea
- 6. Galdera alderdikorik ez idaztea
- 7. Ukapen bikoitzik ez erabiltzea
- 8. Aukera ugariko zerrendaturik ez egitea
- 9. Galdera irekiak baino hobe galdera itxiak erabiltzea, ondoren hobeto prozesatzeko.
- 10. Inkestaren aurretest bat egitea

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

La elaboración de encuestas en línea por parte de los alumnos permite obtener información de distintas personas ajenas al centro o entorno cercano y llegar así a una muestra diversa y representativa. En la elaboración, administración e interpretación de resultados se ponen en juego diversas competencias lingüísticas, matemáticas y de interacción con el mundo.

SERVICIO WEB DE ENCUESTAS EN LÍNEA

A la hora de elaborar una encuestas se recomienda:

- 11. Redactar cuestionarios cortos
- 12. Utilizar vocabulario sencillo y gramática simple
- 13. Motivar en la página de bienvenida y comenzar con preguntas interesantes.
- 14. Procurar que los destinatarios la comprendan sin ayuda.
- 15. Diseñar la estructura con un orden lógico
- 16. No escribir preguntas tendenciosas
- 17. Evitar la doble negación
- 18. No hacer listados con muchas opciones
- 19. Mejor las preguntas cerradas que las abiertas, para su procesamiento posterior.
- 20. Hacer un pretest de la encuesta

GOMENDATUTAKO GUNEAK Non aurki dezaket?

Encuestafacil

http://www.encuestafacil.com/

Encuestafacil.com Espainian eta Latinoamerikan asko erabiltzen den lineako inkesten web-tresna da. Erabakiak hartzeko lagungarriak diren barne- eta kanpo-inkestak azkar eta erraz sortzeko aukera ematen die erabiltzaileei. Doako bertsioak 100 erantzun onartzen ditu gehienez.

SurveyMonkey (ingelesezko webgunea)

http://www.surveymonkey.com/

Surveymonkey tresnak inkestako gehienez ere 100 erantzun biltzea ahalbidetzen digun doako bertsioa ematen du. Inkesta bakoitzak gehienez 10 galdera izan ditzake. Inkestaren itxura pertsonalizatu eta lotura baten bitartez heda daiteke. Emaitzak denbora errealean ikus daitezke.

Hainbat inkesta-zerbitzutarako loturak

http://wwwhatsnew.com/category/encuestas/



SITIOS RECOMENDADOS ¿Dónde lo encuentro?

Encuestafacil

http://www.encuestafacil.com/

Encuestafacil.com es una herramienta web de encuestas en línea muy utilizada en España y Latino América. Permite a los usuarios elaborar por sí mismos, de una forma rápida y sencilla, encuestas internas y externas que ayuden en la toma de decisiones. La versión gratuita permite hasta 100 respuestas.

SurveyMonkey (sitio en inglés)

http://www.surveymonkey.com/

Surveymonkey ofrece una versión gratuita que nos permite recoger hasta 100 respuestas por encuesta, estando cada una compuesta por un máximo de 10 preguntas. Se puede personalizar el aspecto de la encuesta y divulgarla a través de un enlace, viendo los resultados en tiempo real.

Enlaces a distintas opciones de servicios de encuestas

http://wwwhatsnew.com/category/encuestas/